

XIV. Barne-Jardunaldiak

Argomaizen, 2005eko maiatzaren 27 eta 28an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina
Henrike Knörr *Iker* sailburua
Andres Iñigo, *Jagon* sailburua,
Jose Antonio Arana Martija
Adolfo Arejita,
Miren Azkarate (maiatzak 27),
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Emile Larre,
Pello Salaburu (maiatzak 27),
Ibon Sarasola (maiatzak 27),
eta Piarres Xarritton euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea eta Juan
Jose Zearreta, kudeatzailea dagozkien
gaietan.

txostena azaltzeari ekin dio, Espainiar, Katalan eta Galiziar Hizkuntza Akademien arautegietako ereduak eta argibideak emanez. Ondoren J.A. Arana Martijak eta M. Azkaratek egindako oharrak azaldu ditu, bere ustez horien zuzenketak testuan sar daitezkeela esanez.

J. A. Arana Martijak eta M. Azkaratek nork bere proposamenak irakurri eta azaldu dituzte.

2.2. Eztabaida eta onarpena. Ondoren eztabaida izan da, hor. B. Oihartzabal, X. Kintana, J.-L. Davant, M. Azkarate, J. L. Lizundia, P. Goenaga, E. Larre, I. Sarasola, A. Arejita eta H. Knörr mintzatu dira argitasunak eskatuz edota emanez.

Botoetara joanda B aukeraren alde 19 boto alde egon dira, kontra bat ere ez, eta zuririk ere ez.

Beraz, arautegien erreformarako B aukera ontzat eman da. Horren berridazketa ekaineko bilkurarako aurkeztuko da, berretsia izateko.

Gizon-emakumeen arteko berdintasunari dagokionez, Barne-Erregeletan ondoko testu hau eranstea erabaki da: *«Euskaltzaindiak bere barne ibilbidean gizon eta emakumeen berdintasunerako politikak sustatuko ditu»*. Alde 19 boto alde egon dira, kontra eta zuri bat ere ez.

Ezin etorriak eta ahalak:

J. Haritschelharrek, ahala B. Oihartzabali; P. Ondarrak, ahala P. Salabururi; Tx. Peillenek, ahala J.-L. Davanti; P. Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra 2005eko maiatzaren 27an, goizeko 9,05ean, hasi da Argomaizko ostatuko batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Euskaltzainburuaren txostena: Euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren oraingo egoera azaldu du eta erronken txostena irakurri, Erakundeak dauzkan konpondu beharreko arazoak ukituz.

2.1. J. L. Lizundia: Arautegi eta Barne-Erregele aldaketa. P. Telleriak kopiak banatu ondoren, J. L. Lizundiak bere

3. B. Oihartzabal: Euskaltzaindia Frantziako legedian. Euskaltzainen artean banatu ondoren, B. Oihartzabalek txostena irakurri du. Ondoren P. Xarritonek oharrak eta argitasunak eman ditu. J. L. Lizundiak, F. Saragüeta kontulariak Iparraldeko Euskaltzaindia Europar Batasuneko lege-eremuan txertatzeaz egin zuen txostenari buruzko argitasunak ere eman ditu. Ondoren, gai berari buruz B. Oihartzabal eta A. Urrutia mintzatu dira.

4. H. Knörr: Iker sailburuaren txostena. Euskaltzainen artean banatu ondoren, H. Knörrrek bere txostena irakurri du. Ondoren J. A. Arana Martija, B. Oihartzabal, P. Xarriton, J. L. Lizundia, X. Kintana, A. Iñigo eta A. Arejita, txostengileak esandako puntuen inguruan mintzatu dira.

Ordu bat eta erdietan bazkaltzeko etena egin da.

* * *

Arratsaldeko 4etan Jardunaldiei berriro ekin zaie.

5. P. Salaburu: Euskal Gramatika Orokorra egitasmoa. Euskaltzainen artean txostena banatuta, P. Salaburuk *Euskal Gramatika Orotarikoa* txostena irakurri du eta bera azalpenak eman. Ondoren J. A. Arana Martija, A. Urrutia eta J. L. Lizundia mintzatu dira, P. Salabururen planteamendua onartuz eta finantzabiderako irtenbideak eskainiz. M. Azkaratek gramatika moderno eta tradizionalaren arteko oreka gordetzearen arazoa gogoratu du. A. Urrutiak, batzordeburuak proiektuez hartu beharreko erantzukizunak nolakoak diren azaldu du. J. Zearretak inplikazio ekonomiko-administratiboak azpimarratu ditu. P. Salaburuk eta P. Goenagak beren ikuspuntuak azaldu dituzte. J. L. Lizundia proiektu akademikoari onespina ematearen alde dago, finantzabidea Zuzendaritzaren ahalmenaren arabera utzirik. P. Xarritonek hor fonetika ere sartzeari nahi luke. P. Salabururen proiektu akademiko onartu da, erantzukizuna Zuzendaritzaren eta batzordeburuaren artean eztabaidatzeko geldituz.

6. I. Sarasola: Hiztegi gintza egitasmoak. Txostena banatu ondoren I. Sarasolak esan du administrazio publikoak ezin ditzakeela lan akademiko eta intelektualak epe epe hertsien irizpideekin. *Euskara-euskara hiztegia* egiteko proiektua aurkeztu du, oinarri eta adibide-iturri gisa OHE aztertu eta egokituz. P. Salaburuk, B. Oihartzabalek, A. Iñigok eta J. A. Arana Martijak egindako galdera-zalantzei erantzun die I. Sarasolak. Behin hiztegia amaitu eta gero, Euskaltzaindiak eman beharko dio onespina, batzorde baten bitartez. J. L. Lizundiak ere batzordeño baten esku uzteari egoki deritzo. Horrek, *Euskara-euskara hiztegian* kontraesan nabarmenik balego, horien oharra egingo luke, Euskaltzaindiak erabaki ditzan. Ontzat eman da proiektua.

7. A. Iñigo: Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoa. Testua banatu ondoan, A. Iñigok, Patxi Galék prestaturiko txostena azaldu du, bibliografia eta kronogramarekin. Ondoren J. L. Lizundia, J. A. Arana Martija eta B. Oihartzabal mintzatu dira oharrak eta gehigarriak egiteko. P. Xarritonek bibliografian falta den liburu bat aipatu du. J.-L. Davant eta E. Larrek ere beren iritziak agertu dituzte. P. Goenagak protesta egin du Justizia Ministerioarekin argitaraturiko liburu batzuetako datuak sartzeari. A. Iñigok lan honen lehen tasunaren eta garrantziaren alde egin du. H. Knörr ahozko eta idatzizko formen arteko ezberdintasunaz mintzatu da, bai eta jendeak toponimiaz egiten dituen galderari behar den seriotasunaz erantzun ahal izateko lan honek daukan garrantziarekin. Proiektua ontzat eman da.

Bilera 7,45ean eten da.

Biharamunean, 2005eko maiatzaren 28an, goizeko 8,30etan bilkurari berriz ekin zaio.

Ahalak: M. Azkaratek, ahala P. Goenagari eman dio; P. Salaburuk, B. Oihartzabali eta, I. Sarasolak, B. Oihartzabali.

8. X. Kintana eta P. Telleria: Egindakoen eta eginkizunen txosten orokorra. Euskaltzainen artean txosten orokorra banatu ondoan, X. Kintanak, P. Telleriak prestatuturiko txostena azaldu du.

J. L. Lizundiak, zorionak emateaz gainera, burukritika egiteko ordua dela ere esan du. A. Arejitak sistema informatikoaren aldaketak Hizkuntz Atlasari ekarritako atzerapenez hitz egin du. P. Goenagak Akademiaren lan kolegiatuak, osoko bilkuren aktak, eta argitalpenen egileen izenak ere aipatzeko esan du. B. Oihartzabalek, batzordeei egiten zaizkien irizpenei erantzuteko obligazioaz galdetu du, eta, bestetik, Euskaltzaindiaren argitalpen-politika finkatu eta euskararen lekukoak eta klasikoak bultzatzea eskatu du.

Erantzunez, A. Urrutiak azaldu du Euskaltzaindia Hegoaldeko administrazioen aholku-emaile ofiziala dela eta, beraz, erantzutera beharturik dagoela; aldiz, partikularrei erantzuteko obligazioa morala besterik ez dela. Argitalpen politika ere finkatzeko prest dago, lekukoak eta bultzatzeko, beti ere baliabide ekonomikorik nahikoa dagoen neurrian. P. Xarritonek esan du Euskaltzaindiak politikariak gidatu beharko lituzkeela, zeintzuk lan bultzatu behar diren jakin dezaten.

J. L. Lizundia lan kolegiatuak sartzearen alde agertu da, P. Goenagarekin bat, eta Euskaltzaindiak EiTB-rekin eta hitzarmenak sinaturik dauzkan erakundeen galderei erantzuteko obligazioaz mintzatu da. Argitalpen-politika finkatzearekin ere ados agertu da. P. Telleriak, gauza batzuk zergatik ez diren jarri azaldu du, eta Euskaltzaindiak «de facto» baduela argitalpen politika adierazi du, batez ere Erakundearen argitalpenekin, literatura-sariekin eta herri-aginteeekin eta bestelako erakundeekin sinatutako hitzarmenetatik sortzen diren beste batzuekin, eta besterik dela euskararen lekukoak bultzatu nahia. P. Goenagak herri-aginteen kontsultak direla eta, esan du batzuetan ez dela erraza diktamenik ematea, zalantzako kontuak izan daitezke eta.

* * *

9. Ordezkarriak, liburuzaina, batzordeburuak eta batzorde-idazkariak izendatzea.

Organigrama irakurri du Euskaltzainburuak, buru-arduradunak eta idazkariak proposatuz, eta onartu egin dira izendapen hauek:

Arabako ordezkaria: H. Knörr

Gipuzkoako ordezkaria: Ana Toledo

Nafarroako ordezkaria: A. Iñigo

Iparraldeko ordezkaria: P. Xarritton

A. Iker saila. Buru: H. Knörr

I. Hiztegegintza. Buru: I. Sarasola

I.1. Euskara-euskara hiztegia. Arduraduna: I. Sarasola.

I.2. Hiztegi Batuko lantaldea. Arduraduna: J.A. Aduriz.

- II. Gramatika batzordea.** Buru: P. Salaburu
Ohorezko burua: P. Altuna
Idazkari: J. M. Makatzaga
- III. Dialektologia.** Buru: A. Arejita.
Atlasgintza lantaldea. Arduradunak: G. Aurrekoetxea, Xarles Videgain
- IV. Onomastika batzordea.** Buru: A. Iñigo
Idazkari: M. Gorrotxategi.
Exonomastika. Arduraduna: J. L. Lizundia
- V. Literatura.** Buru: J. Haritschelhar
- V.1. Herri Literatura batzordea.** Buru: P. Esnal
Idazkari: J. Kaltzakorta. (E. Larre eta A. Zavala bat datoz izendapenekin).
- V.2. Literatura Ikerketa batzordea.** Buru: J. Haritschelhar
Idazkari: Lourdes Otaegi

B. Jagon saila. Buru: A. Iñigo

- I. Corpus batzordea:** Buru: A. Urrutia
Idazkari J. R. Zubimendi
- Euskalkien lantaldea.** Arduradun: P. Rekalde
- II. Sustapen (Status) batzordea.** Buru: A. Iñigo
Idazkari: E. Osa

Argitalpen batzordea

Burua: Euskaltzainburua, A. Urrutia
Idazkari: Argitalpen eragilea, R. Badiola

Azkue Biblioteka batzordea

Buru: J. A. Arana Martija
Idazkari: P. Gartzia

Lege-Ekonomia batzordea: Zuzendaritza.

Lege azpibatzordea

Buru: A. Urrutia
Idazkari: J. L. Lizundia

Ekonomia azpibatzordea

Burua: J. L. Lizundia
Idazkaria: J. J. Zearreta

Euskara Batuko batzordeari dagokionez, M. Azkaraterekin eta P. Salabururekin mintzatu behar da, berau nola geldituko den erabakitzeko.

Batzordeetako gainerako kideak izendatzea hurrengo osoko batzarrerako utzi da.

Bilera goizeko 10,40an amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

2005-V-28

Barrundia-Larrea haraneko Udaletxea, Ozeta herrian, bildu da Euskaltzaindia 2005eko maiatzaren 28an, eguerdiko 12:30etatik 13:45era, Jon Perez Lazarragaren IV. mendeurrena ospatzeko.

Bildu dira: A. Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; X. Kintana, idazkaria; J. L. Lizundia, diruzaina; H. Knörr, *Iker* sailburua; A. Iñigo, *Jagon* sailburua; J. A. Arana Martija, A. Arejita, P. Charritton, J.-L. Davant, P. Goenaga eta E. Larre euskaltzain osoak.

Koldo Artola eta Joseba Intxausti euskaltzain ohorezkoak.

Euskaltzain urgazleak: X. Arbelbide, R. Badiola, L. Baraiazarra, M. Ruiz de Urrestarazu, P. Uribarren, P. Telleria eta J. J. Zearreta.

Batzordekideak: Jose A. Gonzalez Salazar, Pruden Gartzia, Elena Martinez de Madina eta Zuriñe Rescalvo.

Euskaltzaindiko langileak: Amaia Okariz eta Itziar Rekalde.

Herri Agintariak: Federico Verastegui, Arabako Kultura diputatua.

Mahaiburuan eseri dira: A. Urrutia, euskaltzainburua; X. Kintana, idazkaria; Juan Vidal-Abarca, Historiaren Erret Akademiako kidea; Jose Felix Uriarte, Barrundiako alkatea, Jose Angel Segura, Larreako auzo-alkatea eta, Federico Verastegui, Arabako Kultura diputatua.

Lehenengo eta behin, ongietorria eman die Euskaltzainburuak bertaratu direnei, eta ondoren hitza eman die mahaiko gainerakoei.

Lazarragatarrak Arabako Lautadan

Juan Vidal-Abarcak, «Lazarragatarrak Arabako Lautadan» gaia izan du hizpide. Errege Katolikoek garaian, nolabaiteko prestigioa izan zuen familia dela azaldu du. Jatorriz Oñatikoa diren lazarragatarrek harreman handia izan zuten Oñatiko kondeekin; hori dela eta, Arabarako Lautadara joan ziren bizitzera. Familiaren kide batzuen gora-beherak aipatu ostean –ezkontzak, bidaiak, seme-alabak– Juan Perez Lazarraga omen-dua aipatu du, azkenik, Vidal-Abarcak: «17 urte zituela, Madrilera bere osabaren etxean bizi zen gazte hori omendu nahi dut, tarte libreak, orain gutxi deskubritu dugun eskuizkribua idazten ematen baitzuten».

Lazarraga poeta zahar gaztearen berri onak

Xabier Kintanaren esanetan, Lazarragaren eskuizkribuaren agerrerak «material berri asko ekarri dizkigu, bai literatura arloan eta bai hizkuntzalaritza eremuan ere, eta horren kariaz guztiok hasi behar izan dugu gure hizkuntzaren eta gure literaturaren historia berraztertzen, datu berriekin egokitzeko. Hasteko –azpimarratu du– orain Araba gelditu zaigu gure letragintzaren buruan».

Lazarragak euskal poesia ezagutzen zuen, Kintanaren aburuz: «Hori ondo nabari da bai gaietan eta bai bere lanean zehar errepikatzen diren esalditxo eta klixeeetan». Eta euskal poesia ezagutzen zuela esatean, lehen euskal poeta ere ezagutu zuela adierazi nahi izan du Euskaltzaindiko Idazkariak.

Hori, Kintanaren iritziz, garrantzi handikoa da «euskal literaturaren interpretazio orokorra egiteko orduan. Izan ere, gure literatura maiz aurkeztu izan den era ikusita, irudi luke gure lehenbiziko idazle zaharrak banan-banako frankotiratzaile bakartiak izan zirela, funtsean apaizak, zein bere eskualdeari begira, muga politikoek aldeniak eta elkarren berri izan gabe. Azken aldion biltzen ari garen datuen arabera, ordea, errealtatea oso bestelakoa izan zela dirudi: laikoak eta handikiak ere euskara lantzeaz interesatzen zirela, hasiera-hasieratik bazirela egiazko harremanak Pirinioen alde bateko eta besteko idazleen artean, bazutela elkarren ezagutzarik eta beren obretan bazela, herri bereko semeak ziren aldetik, beren nazioaren literatura sortu eta lantzeko kontzientzia, banaketa politikoak gora behera.

Hitzaldiaren bigarren atalean, Lazarragak «oinarizko hitanoa» erabiltzen duela azpimarratu du Kintanak. Eta halaxe gaineratu du: «Antzinako euskaldunek behintzat horretarako eredu ona eskaintzen digute: hika jarduteko ez dela beharrezko gainerako alokutibo guztiak ere erabiltzea, eta Euskaltzaindian, nik uste, ez genuke gutxienezko hitano horren erabilera gaitzetsi behar, urte gutxi barru hitano osoa galdurik ikusi nahi ez badugu behintzat».

Joan Perez de Lazarragaren genealogia-izkribuak: zenbait ohar

Vidal-Abarcak aipatutako Lazarraga familiaren genealogia -edo kronika- izan da Henrike Knörren hitzaldiaren xedea. *Iker* sailburuaren esanetan, horrek «arrazoi osoz», ikertzaile asko erakarri ditu, hala nola Juan Carlos Guerra, Koldo Mitxelena, Iñaki Zumalde edo Micaela Portilla, bai eta María Comas ere. Azken honek doktorego tesia egin zuen, gai honetaz: *Juan López de Lazarraga, secretario de los Reyes Católicos, y el monasterio de Bidaurreta*.

Knörrek esan duenez, genealogia eta kronika mota hauetan ohi dena dakusagu hemen ere: familiaren loria eta antzinatasuna gorapatzen da. Baita maitasun istorioak, ezkontzaz kanpoko umeak edota gorrotoa eta ezinikusia.

Hizkuntza aldetik, bestalde, interes handia eskaintzen du kronika honek, Henrike Knörren aburuz, «eta euskalari zenbait jardun dira hori ikertzen. Mitxelenak, *Textos arcaicos vascos* liburuan, xeheki aztertu zuen lelo bat, guztiz garbi ez dagoena (guk gaurko grafian emango dugu): «Gaitza zenduan leintzarrok, Urruxolako lekaioa, Sendo zenduan odolori bihurtu jatzu gatzaioa».

Une honetan, Euskaltzainburuak amaitutzat eman du ageriko bilkura, eta bertan dagoen jendea Larreara joatera gonbidatu du.

Oroitarria Larrean

Ageriko bilkura amaitzean, Larreara hurbildu dira euskaltzainak, herri-agintariak eta jende multzoa. Elizaren aurrean bildu den jendeari aureskua dantzatu diote dantzariak. Jarraian, eliza-atarian, Lazarragaren omenezko Euskaltzaindiaren oroitarria agerian jarri da. Honela dio oroitarriak: «Euskaltzaindiak Joan Perez de Lazarragari bere heriotzaren IV. mendeurrenean. 2005eko maiatzaren 28an».

Amaitzeko, hitz batzuk esan ditu Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria